



## Tantaka

Amaior Ruiz Gaspar

EUSKARA POESIA 14-16 URTE

1. Saria

Tanta bat beste bat jarraitzen:

lehen negarra, lehen pausoa,  
atzo hil zena gaur da jaioa,  
noizbehin hil zuena ez da gaiztoa,  
lehen gatazka, azken malkoa.

Apurka batzen eta ontzia betetzen:

irabazteko aukera eta galtzeko beldurra: antagonismo hutsa,  
hiru ordu instagramean galduta: gazteria makurtuta,  
paretetan pintadak: ezinegona,

beldurra,  
denbora apurra,  
egunero landuz gero, gurea ez den lurra,

amets lapurketa.

Urak gainezka egiteko falta zena:

amonaren hileta, bi begi malkoz beteta,  
zuretzat, lore sorta bat,  
azken tanta: heriotza,  
non ezkututzen duzu mina?

Tanta bat beste bat jarraitzen,  
apurka batzen eta ontzia betetzen,





urak gainezka egiteko falta zena:  
errudun gisa hartuko dugu azkena.

